



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko abenduaren 18a

143. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

- Foru Lege proiektua, Nafarroako 2013ko Kontu Orokorrei buruzkoa (3. or.).
- Foru Lege proiektua, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatu, etxebizitza arloko jarduketa babesgarriari aplikatu beharreko moduluak ezarri eta Nafarroako Etxebizitzen Erregistro Orokorra sortzen duena. Osoko Bilkurak bazter utzi du osoko zuzenketa (4. or.).

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

- Foru Lege proposamena, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legea aldatzen duena. Akats zuzenketa (5. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jarduketa-programa bat presta dezan seme-alabek gurasoei egindako erasoen kasuetarako. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behin-behineko irakasle doktore kontratatuaren figura arautu dezan. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alda ditzan Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza ez-unibertsitarioko ikastetxe publikoetan eta pribatu itunduetan ikasleak onartzeari buruzko araudia eta ikastetxeen eragineremuak ezartzen dituen araudia. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak aitortzen du euskarazko hedabideek egiten duten lanaren garrantzia. Osoko Bilkurak onetsia (8. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lege proiektu bat aurkez dezan, 2015. eta 2016. urteetarako toki-inbertsioko plan berri bat jasoko duena. Osoko Bilkurak onetsia (8. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da langile nahikoz hornitzera kontsulta espezializatuak. Osasun Batzordeak onetsia (9. or.).

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egin dezan, gehienez ere sei hilabeteko epean, Foru Komunitatean telefonia finko nahiz mugikorreko eta Interneteko zerbitzua eskuratzeko zailtasunak dituzten herriei eta eremuei buruzkoa. Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Batzordeak onetsia (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak berretsi eta gaurkotu egiten du Hobekuntzari buruzko Lege Organikoa negoziatzeko oinarrien gaineko 1982ko martxoaren 15eko erabakia, halako moduan non euskara hizkuntza ofiziala izanen baita Nafarroa osoan. Osoko Bilkurak bazter utzia (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da plan bat aurkez dezan, CRANA fundazioak esleituta zituen eta garatu dituen helburu, eginkizun eta zerbitzuak gauzatzeko departamentu, alor, giza baliabide eta baliabide ekonomikoak jasoko dituen. Osoko Bilkurak bazter utzia (10. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Foru Lege proiektua, Nafarroako 2013ko Kontu Orokorrei buruzkoa.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko abenduaren 15ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 18. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Gobernuak, 2014ko ekainaren 25ean hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako 2013ko Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura. Hari buruz, Comptos Ganberak txosten bat eman du, 2014ko azaroaren 19ko 127. Nafarroako Parlamentuko Aldikari Ofizialean argitaratua.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 157. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

### **ERABAKIA:**

**1.** Xedatzea Nafarroako 2013ko Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua Legebiltzarraren Osoko Bilkuran irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2014ko abenduaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Nafarroako 2013ko Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua**

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 18. artikuluan xedatutakoari jarraituz, Diputazioari dagokio Aurrekontu Orokorrek prestatu eta Kontuak formalizatzea Parlamentuan aurkezteko, bertan eztabaidatu, zuzendu eta, hala erabakiz gero, onets daitezzen, hori guztia foru legeetan ezarritakoari jarraituz.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 123. artikulua Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuaren esku uzten du Nafarroako Kontu Orokorren formulazioa. Horiek, behin Nafarroako Gobernuak onetsitakoan, Nafarroako Parlamentura igorri behar dira, dagokion foru lege proiektuaren bidez, aipatutako foru legearen 130. artikuluan ezarri bezala.

Nafarroako Gobernuak eginak ditu egin beharreko tramiteak 2012ko ekitaldiko Kontu Orokorrei buruz, Kontuen Ganberak emana du behar den irizpena eta tramitatua dago Nafarroako 2011ko Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 154. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz. Bidezkoa da, beraz, foru legea onestea.

**Artikulu bakarra.** Nafarroako 2013ko Kontu Orokorrek onesten dira, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuak formulatu eta Nafarroako Gobernuak onetsiak, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 130. artikuluan ezarritakoaren arabera. Kontu Orokorren edukia Nafarroaren Atarian argitaratuko dira.

**Foru Lege proiektua, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatu, etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei aplikatu beharreko moduluak ezarri eta Nafarroako Etxebizitzen Erregistro Orokorra sortzen duena.**

*OSOKO BILKURAK BAZTER UTZI DU OSOKO ZUZENKETA*

Nafarroako Parlamentuak, 2014ko abenduaren 11n egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen bazter uztea Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak ondo-ko foru lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketa: "Foru Lege proiektua, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatu, etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei aplikatu beharreko moduluak

ezarri eta Nafarroako Etxebizitzen Erregistro Orokorra sortzen duena."

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 132.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, aipatu proiektua Sustapen Batzordeari igorri zaio.

Iruñean, 2014ko abenduaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Foru Lege proposamena, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legea aldatzen duena.**

**AKATS ZUZENKETA**

Akats bat atzeman da Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamenaren argitalpenean. Foru lege proposamena Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García jaunek aurkeztu zuten, eta 2014ko urriaren 31ko 117. NPAOn eman zen argitara. Beraz, akats hori zuzendu beharra dago.

Artikulu bakarra, hamargarren idatz-zatia, zeinaren bidez aldatzen baita Sozietateen gaineko zergari buruzko 24/1996 Foru Legearen 70. artikulua.

25. orrialdean, eskuineko zutabearen, 7. idatz-zatiaren aurretik, ondorengo testu hau falta da:

“1. Sormenaren arloko langileen gastuak, baldin eta egoitza fisikoa Espainian edo Europako Esparru Ekonomikoko kidea den estaturen batean

badute, 50.000 euroko mugarekin pertsona bakoitzeko.

2. Industria teknikoak eta bestelako hornitzaile, garraio, ostatu eta mantenuak erabiltzetik heldutako gastuak, ekoizpenerako beharrezkoak direnak.

5. Bateriaezinak dira artikulu honetako 3. eta 4. idatz-zatietan aurreikusitako kenkariak.

6. Artikulu honetan aipatzen den kenkaria obraren ekoizpena bukatzen den zergalditik aurrera eginen da. Idatz-zati honetan aipatzen diren kenkariak obraren ekoizpena bukatzen den zergalditik aurrera eginen dira. Zergaldi horretan kentzen ez diren zenbatekoak ondorengo zergaldietako likidazioetan aplikatzen ahalko dira, Foru Lege honetako 72. artikuluan aurreikusirik baldintzetan”

Iruñean, 2014ko abenduaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jarduketa-programa bat presta dezan seme-alabek gurasoei egindako erasoen kasuetarako.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2014ko abenduaren 11n egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jarduketa-programa bat presta dezan seme-alabek gurasoei egindako erasoen kasuetarako".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du administrazio publikoen jarduketa

programa bat taxutu dezan (Nafarroako Gobernuako departamentuak –esate baterako, Gizarte Politikak, Hezkuntza eta Lehendakaritza, Justizia eta Barnea–, justizia administrazioa, eta abar), seme-alabek gurasoen aurka baliatutako indarkeria kasuei aurre egiteko eta erantzun egozia emateko, besteak beste ondoko neurriak jasoko dituen: jarduketa protokolo bat, profesionalentzako prestakuntza, eta ukituentzako informazioa, bitartekaritza, laguntza eta aholku-ematea".

Iruñean, 2014ko abenduaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behin-behineko irakasle doktore kontratatuaren figura arautu dezan.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2014ko abenduaren 11n egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behin-behineko irakasle doktore kontratatuaren figura arautu dezan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behin-behineko irakasle doktore kontratatuaren figura arautu dezan halako kasuetarako non, irakasle laguntzaile doktore gisa legezko epeak agortu eta irakasle doktore kontratua izateko baldintza guztiak beterik, kontratazio

hori ezin den egin, ordezkate-tasa indardunak izaera orokorre ezarritako murriztapenak direla kausa.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du irakasle doktore kontratuei eta irakasle laguntzaile doktoreei aplika diezazkien langile horien hitzarmen kolektiboan jasotako aurreikuspenak (Arriskuen Prebentziorako eta Lanaren zuzendari nagusiaren 394/2008 Ebazpena) eta banakako merezimenduei dagozkien ordainsari gahigarriei buruzko araudian jasotakoak (37/2009 Foru Dekretua), irakasle funtzionarioei aplikatzen zaizkien baldintza beretan".

Iruñean, 2014ko abenduaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alda ditzan Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza ez-unibertsitarioko ikastetxe publikoetan eta pribatu itunduetan ikasleak onartzeari buruzko araudia eta ikastetxeen eragineremuak ezartzen dituen araudia.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2014ko abenduaren 11n egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alda ditzan Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza ez-unibertsitarioko ikastetxe publikoetan eta pribatu itunduetan ikasleak onartzeari buruzko araudia eta ikastetxeen eragineremuak ezartzen dituen araudia"

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du alda ditzan Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza ez-unibertsitarioko ikastetxe publikoetan eta pribatu itunduetan ikasleak onartzeari buruzko araudia eta ikastetxeen eragineremuak ezartzen dituen araudia, halako moduan non araudi horiek ikasleen sozializazioa eta integrazioa bultzatuko dituen eskola-antolamendu bat sustatuko baitute, ikasleak beren etxetik hurbilen dagoen ikastetxean eskolatuko

dituena, eta zuzenduko duena ikasleak ikastetxe jakin batzuetan kontzentratzea ikaslearen edo haren familiaren jatorriaren, erlijioaren, sexuaren, ahalmenaren nahiz beste edozein inguruabar indibidualen arabera.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari exijitzen dio onbideratu dezan ikastetxe publikoak eraiki, berritu eta handitzeko politika, halako moduan non urgentziaz ekinen baitie ikastetxe berrien obrei, konponketei edo handitzei, instalazioak urriak diren auzo, herri edo hiri guztietan.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari exijitzen dio aurrekontuaren eta antolamenduaren aldetik lehentasuna eman diezaien ikastetxe publikoei, halako moldez non ikastetxe publikoen sarea hezkuntza zerbitzuaren bizkarrezurra izanen baita Nafarroan".

Iruñean, 2014ko abenduaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak aitortzen du euskarazko hedabideek egiten duten lanaren garrantzia.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2014ko abenduaren 11n egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak aitortzen du euskarazko hedabideek egiten duten lanaren garrantzia."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak aitortzen du euskarazko hedabideek Nafarroan euskararen berreskurapen eta garapenean egiten duten lanaren garrantzia eta nafar herritarroi eskaintzen diguten zerbitzua.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, 18/1986 Euskararen Legea bete dezan, euskara hedabideetan sustatzeko neurriak hartzeari dagokionez.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Parlamentuak hainbatean egin dion eskaera bete dezan, alegia, hedabideekin hitzarmenak lantzeko, euskarazko hedabideen biziraupena eta lana modu egonkorrean ziurtatze aldera.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du aurrekontuetan euskara sustatzeko diru partida gauza dezan, eta diru-laguntza deialdia argitara dezan, diru kopuru nahikoarekin, eta ahalik eta lasterren bana dezan. Gainera, deialdia egiteko irizpideak azken urteetan erabilitakoak izan daitezela, alegia, euskara hutsuz jarduten duten hedabideak lehenestea diru-laguntzak esleitzerakoan".

Iruñean, 2014ko abenduaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lege proiektu bat aurkez dezan, 2015. eta 2016. urteetarako toki-inbertsioko plan berri bat jasoko duena.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2014ko abenduaren 11n egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lege proiektu bat aurkez dezan, 2015. eta 2016. urteetarako toki-inbertsioko plan berri bat jasoko duena."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako herrietan 2015ean eta 2016an egin beharreko toki inbertsioen plan berri bati buruzko lege proiektu bat aurkez dezan.

2. 2008ko toki inbertsioen planean bezala, plan berriak Nafarroako Gobernuaren eta toki entitateen artean partekatutako finantzaketa bidez eginiko obrak jaso daitezzen, ehuneko 70-30eko proportzian.

3. Aurreikusitako finantzaketaren parte bat erreserba dadin udal bakoitzak libreki erabakitako obrak egiteko.

4. Toki inbertsioen plan berri honetara bideratutako urteko zenbatekoa ez dadin izan 55 milioi euro baino txikiagoa, Nafarroako udalek proposatutako obra guztien artean banatu beharrekoa, 2008ra arte ohikoa zen moduan".

Iruñean, 2014ko abenduaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera



## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da langile nahikoz hornitzera kontsulta espezializatuak.**

### *OSASUN BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2014ko abenduaren 10ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da langile nahikoz hornitzera kontsulta espezializatuak."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Osasun Departamentuaren

bidez behar adina langilez (medikuak eta erizaintzako laguntzaileak) horni ditzan kontsulta espezializatuak –zehazki, pediatriakoak–, ziurtatzearen kontsulta horiek hobeki funtzionatzea, zerbitzu medikoa hobea izatea eta profesionalak pozago egotea, zerbitzuaren kalitatea hobetzea ekarriko duena, aldi berean".

Iruñean, 2014ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egin dezan, gehienez ere sei hilabeteko epean, Foru Komunitatean telefonia finko nahiz mugikorreko eta Interneteko zerbitzua eskuratzeko zailtasunak dituzten herriei eta eremuei buruzkoa.**

### *LANDA GARAPENENKO, INGURUMENENKO ETA TOKI ADMINISTRAZIOKO BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Batzordeak, 2014ko abenduaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egin dezan, gehienez ere sei hilabeteko epean, Foru Komunitatean telefonia finko nahiz mugikorreko eta Interneteko zerbitzua eskuratzeko zailtasunak dituzten herriei eta eremuei buruzkoa."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du azterlan bat egin dezan sei hilabeteko gehieneko epean, gure erkidegoan Internet eskuragarri izateko nahiz telefonia finkoa

edo mugikorra erabiltzeko zailtasunak dituzten herriei eta eremuei buruz.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du azterlanaren emaitza ikusita konponbiderik egokiena planteatzea dezan herri bakoitzarentzat, berdintasuna lortu arte telefoniaren nahiz informazioaren eta komunikazioaren teknologien eskuragarritasunari dagokionez.

3. Nafarroako Parlamentuak, Gesalatz ibarreko populazioaren egoera ikusita –komunikazioen arloan bizi duten egoera salatu dute Parlamentuan–, Nafarroako Gobernua premiatzen du konponbide bat eman dezan berehala, bertako udalekin eta kontzejuekin bat etorritik, ibarreko komunikazio arloko arazoak gainditzeko".

Iruñean, 2014ko abenduaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak berretsi eta gaurkotu egiten du Hobekuntzari buruzko Lege Organikoa negoziatzeko oinarrien gaineko 1982ko martxoaren 15eko erabakia, halako moduan non euskara hizkuntza ofiziala izanen baita Nafarroa osoan.**

*OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak berretsi eta gaurkotu egiten du Hobekuntzari buruzko Lege Organikoa negoziatzeko oinarrien gaineko 1982ko martxoaren 15eko erabakia, halako moduan non euskara hizkuntza ofiziala izanen baita Nafarroa osoan."

Nafarroako Parlamentuak, 2014ko abenduaren 11n egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2014ko azaroaren 21eko 129. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2014ko abenduaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da plan bat aurkez dezan, CRANA fundazioak esleituta zituen eta garatu dituen helburu, eginkizun eta zerbitzuak gauzatzeko departamentu, alor, giza baliabide eta baliabide ekonomikoak jasoko dituen.**

*OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Patxi Leuza García jaunak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da plan bat aurkez dezan, CRANA fundazioak esleituta zituen eta garatu dituen helburu, eginkizun eta zerbitzuak gauzatzeko departamentu, alor, giza baliabide eta baliabide ekonomikoak jasoko dituen."

Nafarroako Parlamentuak, 2014ko abenduaren 11n egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2014ko azaroaren 28ko 133. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2014ko abenduaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera



